

## **TALAKO KANTINA USTIATZEKO KONTRATU BEREZIAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

### **1.- HELBURUA.**

Talako kantinaren zerbitzua ematea da deialdi honen helburua, Plegu honetan eta Baldintza Administrazioen Pleguan ezarritakoaren norainokoaz eta edukiaz.

### **2.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.**

Administrazio-baldintza zehatzen orrietan ezarritakoez gain ondorengoak dagozkie:

a) Talako kantina hori egokitzeko obrak amaitzen diranetik aurrera zabaldu ahal izango da kantina.

b) Kontratua sinatzen denean 30 eguneko gehiengo epe barruan zabalduko da kantina, beti ere kantina egokitzeko obrak amaituta badagoz. Zabaltzea egin barik epe hori igaro ondoren, Udalak ustiatze kontratua deuseztatu egin daiteke.

b) Kantinako instalakuntzak jagon, ostalaritzako honelako establezimenduetarako bereziki aplikagarria den legedia zehatz eta mehatz gorderik.

c) Dagoen kategoriarik, hau da 2. kategoriarik, dagozkion ustiatzearen helburua eta muga orokorrak errespetatu. Esleipendunak ezin izango du aldatu zerbitzua emateko kantinaren lokalen destinoa, egoera onean mantentzera behartuta dagoelarik, egin behar diren konponketak eginez, baita erabiltzaileek egindako narriaduren erantzukizuna ere izango duelarik.

Kontratuaren amaieran instalazioa hartu duen moduan entregatzen behartuta dago.

Ezin izango du egin egitura aldatu dezaketen obrarik Udalaren baimen espresuki barik.

d) Esleipenduna behartuta dago eskuduntzadun Erakundeek behar dituzten Osasun, Turismo, Ogasuna edo, ostalaritza garapenerako behar diren bestelako lizentzia, baimenak, ea. egunean edukitzen.

e) Zerbitzua emateko orduan kaltetutako hirugarren batzuk indemnitzatzea. Horretarako, kontratua formalizatzerakoan, kantina zerbitzua dela



eta, erantzukizunagatik, kantineko erabiltzaileak sartzen den 100.000 € gutxiengo arrisku polizaren suskripzioa kreditatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du esleipendunak.

- f) Hileko lehen lan egunean ordainduko du kanona.
- g) Jardueratik eratorritako tasa eta zerga guztien ordainketa.
- h) Erabiltzaileen eta kantinean lan egin behar dutenen jarrera egokiaz erantzun beharko du.
- h) Zerbitzua ematen duen bitartean euskaraz ariko da.
- i) Kantinearen kontserbazio eta mantentze gastuen kargu egitea, argia, ura eta garbiketa barruan direlarik.

### **3.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK.**

Terraza jartzeko eskubidea izango du, ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko udal ordenantzak finkatutakoa jarraituz, tasak ordainduz eta udal teknikariek adierazitako irizpideen arabera.

### **4.- IUS VARIANDI.**

Administrazioak interes publikoak horrela eskatuko balu, beharrezkoak liratekeen kontratuzko aldakuntzak sartuko lituzke, gerta daitezkeen benetako kalteak esleipendunari ordainduz. Gauzak horrela, kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehaztetan ere kontratua aldatu ahalko da Baldintza Administratiboen Pleguaren 11. Puntuan zehaztutako prozedura jarraituz eta bertan zehaztutako eraginekin.

### **5.- ORDUTEGIAK.**

Kantinari dagokionez, bere kategoriarentzat orokorrean ezarritako ordutegia gordeko da, hau da, 2. Kategoriako establezimenduen ordutegi bardina eukiko dau.

### **6.- DEBEKUAK.**

Esleipendunak ezin izango du utzi, berrakuratu edo jabez aldatu, ez eta beste inolako erako eskubideen lagarpenik egin ere.



## **7.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOAK ETA ONDORIOAK**

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223. eta 286. artikuluetan azaltzen direnak izango dira, 223. artikuluko d) eta e) letretan aurreikusitakoak izan ezik.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 288. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

Bermeon, 2015eko apirilaren 30ean

